



(argazkia: U. G. Kultur Sharea)

[BIZKAIA](#)
[GIPUZKOA](#)
[LITERATURA](#)
[NABARMENDUAK](#)
[PORTADAN](#)

[BIDEOA] NEREA ARRIEN IDAZLEAK PERSPEKTIBA ARIKETA BAT PROPOSATZEN DU HELDUENTZAKO 'JENDE LIKIDOA' LIBURUAN

By Ainhoa Lores Aranda / 2021-05-03

BILATU

Bilatu ...

BILATU

Ikuspuntu orokor batetik gizarte postmodernoari so jarri da egilea.

Hiru hilabete dira **Nerea Arrien** idazleak (Lekeitio, 1976) gaztetxoei zuzendutako *Etxegabetuak* eleberria kaleratu zuela, eta dagoeneko bueltan da helduentzako bere bigarren liburuarekin. *Jende likidoa* (**Erein**) izenburupean, perspektiba ariketa bat egin du egileak lan hau idazterako orduan, eta ikuspuntu orokor batetik gizarte postmodernoari so jarri da. Arrienek azaldu duenez, "ikuspuntu desberdinetatik idatzitako liburu bat da, hasiera batean begiraleak kanpotik begiratzen du eta era orokorrean marea likidoa ikusten du, hortxe daude liburuaren ardatzak diren gizarte likidoaren gaiak, hala nola: maitasun likidoak, identitate anizkoitzak, polimaitasunak, bakardadeak, huts sentsazioak, irudiaren tiraniak... pixkanaka, marea osatzen duen jende likidoa zoom baten bidez fokatzeko".

Liburuko narrazioetan ageri diren pertsonaiak euren artean desberdinak izan arren, guztiek dute amankomuna den azaleko geruza bat: herratuak, zalantziarik, erresistentziarako gaitasun gutxiak... dira denak. "Duten minetan, zaurietan, bideetan duen eragina jakin gabe, etengabe interpelatuko dute gizarte likidoa. Erantzuna, ordea, irakurleak baino ez du jakingo. Nabardura honetan sostengatzen da liburuaren fikzioa eta, era berean, fikzio hau uraren ezaugarrietan oinarrituko da. Itsas- ozeanoen epikatik ihes egin eta likidoaren alde bare, isil moldagarri edota, denboraren poderioz higatzeko duen gaitasunari erreparatuko zaio. Hauexek direlako egunerokotasunarekin parekotasun gehien dituztenak, eta ipuin hauek egunerokotasunean oinarrituta daude".

Arrienen arabera beraz, "ur prosaikoek bustiko dituzte narrazioak; lixibaz betetako baldeek, hoditeriek, harraska buxatuek, likido lingirdatsuek... eta hauen bidez, ur mitologiatik urrun geratzen den jende likidoa eraikiko da. Bebarru garbitzaileak, buzoak, labarretako arkitektoak, kostaldeko idazleak, Mai Elkanok, arrain saltzaileak... osatuko dute fauna akuatikiko postmoderno". Lurrundutako jendea edota, jende eferbeszentearen garaira heldu baino lehen, likidoa izan den denbora bateko lekukotasuna jaso du idazleak.



Zabaldu:




Tags: Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Jende Likidoa, Nerea Arrien

← 'ZIRGARIAK' ESKULTURA-MULTZOA JARRI DUTE IKUSGAI BILBON, EMAKUMEEN LANA ETA BERDINTASUNA ALDARRIKATZEKO

'ARTXIBOA ETA SORKUNTZA' IZENEN SOLASALDIAK ANTOLATU DITUZTE EKAINEAN, BAIONAN →



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAIALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Saiala (Hizkuntza Politikako Saiala) - Kulturdepartamentuak (Hizkuntza Politikako Saiala)

